

HIRUDIA
Txema Arinas

Idazlea



Zu eta biok

Ez dut inoiz gogoko izan medikuntzaren edo gaitzaren arteko gaiak jorratzen dituen literatura. Jakin, ordea, badakit literaturagai oso berezia dela gogoeta luze eta sakonak, eta beharbada oso pertsonalak eta zintzoak ere bai, egiteko parada apartekoa eskaintzen baitu. Horrenbestez, ezta harritzekoa herioa nahitaezko pertsonaia duen narratiba batek hain emaitza onak jaregin izana, eta bat bakarra aipatzearren, agian edo nire ustetan behitza aipagarriena, Thomas Mannen *Der Zauberberg* (Mendi Magikoa, 1924). Gurean, ordea, eta azken urteotan argitaratuak, Joxe Aranzabal arrasatearraren *Medikuak esan dit minbizia dudala* (2005) edo Juan Gracia Armendariz iruine-searean *Diario de un hombre pálido* (2010). Bi liburu benetan goraiatzekoak gaixoarene bizipenaren berri ematen digutenak oso ikuspegi ezberdinetatik. Nik, ordea, oso gainetik irakurri ditut, edo agian hobe nuke esatea oso urrunetik, hau da, bi istorioen nondik norakoak idazgai hutsa bailiran, nigan inolako eragin emozionalik edo ez bailuten; hau da, irakurketa akaso epelegia, gaitzaren gai nagusiarekin zerikusirik ez zuten

beste alderdi batzuetan erreparatu, besteak beste, umorean. Bai, badaude idazle kaskarrak, baina baita irakurle kaskarrak ere. Edo nola ere, aitor dut nirea medikuntzaren eta gaitzaren gaiari muzin egiteko jokaera hotz bezain ganoragabekoa zela, hau da, gaiak gertutik aurre egin behar izan ez dionarena.

Anjel Lertxundiren *Zu* liburuarekin guztiz alderantziz suertatu zait. Lehenik eta behin, nik oraintsu gaitzarekin eta heriotzarekin zerikusi zuzen eta batez ere familiarra duen bizipen bat pairatu behar izan dudalako oso gertutik. Bigarrenik, aldiz, Lertxundik *Zu* pertsonaiaren minbizia- ren nondik norakoen berri emateko hautatutako ikuspegiak bete-betean asmatu baitu istorioa niri behintzat guztiz atseginagoa edota hurrena egokitu zekidan. Izan ere, Lertxundik bere burua, edo hasiera batean Zuren hurkoena, senarra kasu honetan, -liburuan zehar idazlea eta hurkoena tartekatutako edo lardaskatutako egiten baitira-, aukeratu du protagonistak. Alde horretatik nola ez egin irakurleak sarritan egin ohi duen ariketa ia instintiboa bere burua narratzaile edo protagonistarekin antzemanez. Gauzak horrela, gaixoarene alda-

menean etengabe dagoen protagonistaren nondik norakoak ditugu irakurgai. Badira, beraz, Lertxundi edo Zuren senarraren gogoetak, liburuaren mamitzen dutenak, gaitzari zein heriotzari buruzko gogoetak, noski, baina gaixoarene alboan dagoenaren ikuspegitik, hau da, gaitzaren eta heriotzaren menpean ez dagoenarenak, baina bai ordea euren ondorioen mendekoa denarenak. Anjel Lertxundiren gogoetak dira, hau da, aspalditik maisu dugun idazle zinez trebe eta jori batenak. Maisutasun hori liburu pertsonal eta gogor honetan ikaragarri erabiltzen du. Zuren bitxoren kontrako borrokari buruzko narrazioa txit orekatua da, ondo harilkatua, oparo aberastua, hainbat aipu literarioz zein zertzelada pertsonalez eta beti bezain txukun idatzia. Irakurketa zintzo eta hunkigarria da ezer baino lehen, ni behintzat erabat inarrosi nauena, zergatik ez aitor, Lertxundik berak dioenez, biluztea lizunkeriak hartzen duen gizarte baten parte ere izanda. Esan nezake, atrebentzia baldin bada ere, *Zu* bezalako liburu batek autolaguntza generoa nola edo hala zuritzen duela, edo hobeto esanda, delako genero trauksila erabat zentzugabetzen duela, liburuetan topa dezakegun laguntza bakarra, plazebo bakarra, egiazko literaturan baitago, batez ere Lertxundiren *Zu* hau bezalako irakurketa zintzo eta aberats bat baldin bada.

«Halaber, ustez badakit idazten ari naizenak arrisku pertsonal askoren aurrean jartzen nauela ere: asko ez du nire ahalegina ulertuko, biluztea eta aitortza lizunkeriak hartzen dituen gizarte baten parte naiz». (*Zu*, Anjel Lertxundi).

Ruben Dario Nikaraguako 'Heroi Nazional' izateko proposatu dute

LITERATURA • Ruben Dario poetaren heriotzaren mendeurrena izango da larunbatean, eta, horren kariatara, Nikaraguako Heroi Nazional izendatzea proposatu du Asanblada Nasionaleko zuzendaritzak. «Aberriaren alde lan egin duten pertsonen lana» aitortzea du helburu izendapenak. Bestalde, Asanbladak poetaren bi liburu (*La vida de Dario* eta *Historia de mis libros*) argitaratuko ditu ale bakarrean.



George Miller, Donostiako Zinemaldian, Fipresci saria jasotzen. J. MANTEROLA / ARP

George Miller izango da epaimahaiburua Cannesko zinema jaialdian

ZINEMA • George Miller zinemagile australiarra izango da epaimahai ofizialeko burua maiatzaren 11tik 22ra egingo den Cannesko 69. Zinemaldian. *Mad Max* film sailaren egilea da Miller, eta, 1979tik 1985era zuzendutako trilogiaz gain, berak egin du *Mad Max: Fury Road* (2015), sari andana irabazi duen filma. Hark zuzenduak dira, halaber, *Lorenzo's Oil*, *Babe* eta *Happy Feet* filmak ere.

5

BILBOARTEK ESTREINATUKO DITUEN IKUS-ENTZUNEZKOAK
Bilboartek Paula Bañuelos, Laura Hojas, Beatriz Nieto, Alvaro de la Hoz eta Zuriñe Goikoetxearen ikus-entzunezko bana estreinatuko du bihar, 19:00etan. Bilbo eta Santander (Espainia) arteko «distantzia emozional eta fisiko» murriztea du helburu proiektuak.




«Aniztasun arazo bat dago Oscarretan, baina egoera horren jatorria industrian bertan dago. Diskriminazio positiboa behar luke egon»

Tim Roth
Aktorea

Grimes musikari kanadarra ere izango da BBK Live jaialdiaren programazioan

MUSIKA • Grimes musikari kanadarra BBK Live jaialdian izango da. Festibala uztailearen 7tik 9ra egingo da, ohi bezala Kobetamendin, eta dagoeneko iragarriak dituzte antolatzaileek hiru kartelburuak: Pixies, New Order eta Arcade Fire. Grimes proiektuaren atzean Claire Boucher dago, synth-poparen alorrean bide arrakastatsua egin duen musikaria. Bere azken diskoak, *Art Angels*-ek (2015), oihartzun handia izan du.



Anjel Lertxundi, *Zu* aurkeztu zuen egunean. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS